

III URTEA - IV ZENBAKIA

1922 URĪĻA-LOTAZĪĻA

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA'REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOS Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAUX ET ACTES DE L'ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



BILBO'N

Euskaltzaindia'ren etxean
Ribera, 18

DONOSTIA'N

San Iñazio'ren Gutundegian
Garibay, 28

EUSKO-ARGITALDARIA

BANCO DE ESPAÑA, 3

BILBAO, 1922

EUSKALTZAINDIA'REN 3.^{en} URTEKO ==

== **BATZAŘ-AGIRIAK** ==

== **"Bai ta Ez" Aditz-aurrean** ==


== **(Eguskitza jaunaren txostena)** ==

== **Cuestiones Fonético-Ortográficas** ==

== **(Azkue jaunaren txostena)** ==

== **¿BA ala BAI?** ==

== **(Altube jaunaren txostena)** ==



EUSKALTZAINDIA 'REN

IRUGAĖEN URTEKO BATZAĖAK

**Durango'n, Jesus'en Lagundikoek dauken Ikas-
tetxeko areto nausian, 1921'ko IraĖa'ren 7'an.**

Batzandu dira Azkue, Urkixo, Lakonbe, Olabide, Altube, Lhande ta Eguskitza euskaltzaĖnak eta Ormaetxea, Oleaga, Lekuona ta Belaustegigoitia urĖazleak.

Lenbizi. Euskaltzain buruak gure erien berĖ eman digu. Intza Aba sukaĖ ustelez eri egon da ta dago: Irigaray sendatzale azkaĖak dionez «polikixiago dugu, baĖo oraino gaitzak ez du utzi» Eleizalde'ri Hamburgo'n irugaĖen ebaketa egin diote: obeki dijoa ta laisterĖ guziz sendatuko dala uste degu. Maidagan ere sukaĖ ustelez eri egon da; baĖo gaitzak utzi du ta aldi gutxi baĖu bere zeregiĖetan ari al izango da.

BigaĖen. Idazki batzuek irakuĖi dizkigu. Kanpion Jaunak euskalegun oyetara etoĖtzeko betarik ez duala adierazten du. Gazteiz'ko gure Gotzain Jaunak ere bere erantzute adeitsuan auxe dio: Zuen aĖtera pozik joango nintzake; baĖo egun oriek EĖioja-aldean Sendatza emateko autatuak dauzkat eta Durango'rako astirik ez det.

Zurikalday Araba'ko Aldun buru Jaunak ere, Gazteiz'ko jayak dirala-ta, gure aĖtera etoĖtzeko betarik, ez duala dio. Intzagaray, gure lankideak, AstaĖloa zanaren dedu ta opaz olerĖkirik ez duala idatzi ta bere

eleizako zeregiñak euskalegunetara etoritzea ere eragotzi egiten diela agertzen digu.

Irugaren. Durango'n antzerki-jayak egiteko Donostia'ko antzerkilariei Uztala'ren 8^{an} ots-egin ziela; baño Dagonila'ren 24^{an} ezetza eman zielako, begararakin beranduxe itunketan ibili bear izan duala jakinerazi digu Euskaltzain buruak.

Laugarren. Apraiz Jaunak aurtan egin duan lanaren beñi emateko, atsegiñez entzun dan txosten bat irakurri du. Datorren urteko ikasketak non eta norekin egingo otedituan erabaki baño len, ikasle onek Schuchardt Jaunari bere iritzia galdetu dezayola zuzenetsi da. Iraizoz Aba ere nora ta norengana bialiko ote-degun aipatu degu; baña erabakirik ez da aritu.

Boskarren. Sariketara aurkeztu diran lanak Olabide, Lhande, Ormaetxea ta Lekuona'k irakurri eta iker bitzate ta beren aburua Euskaltzaindia'ri ager bezaye.

Eta beste gabe, «Gloria» esanaz, batzaraldi au bukatu da.

Durango 'n, Jesus 'en Lagundikoen Ikastetxe-aretoan, 1921 'ko Iraila 'ren 8 'an.

Atzoko batzar-agerian aipatzen diran euskaltzain eta uñgazleak bildu ziran.

Erabaki oyek aritu dira:

1. Durango 'ko Udala'ri euskalegun oyetarako eman dizkigun erextasunakatik, eskerak egin bitzazkio. Enday'an bizi dan Estomba Jauna, España'ren konsulari ere, zuberotar dantzari azkarai muga igarotzea uñirik laketu dielako, anitz eskar. Orobat, bere

senafaren argazkia Euskaltzaindi'ra biali dualako, Van Eys euskalariaren andere alargunari ere.

2. Enbeita Jaunari bere olerkiaren saritzat, eun lauerleko ta joan-etoñian eralgi duanaren ordezt beste beñogetamar ematea zuzenetsi da.

3. Euskalegun oyetan itzaldiren bat edo beste egin duten Jaunai zenbana diru sautu duten galdetu bea zaye ta ordaña eskeñi ere bai.

4. Urngo euskalegunetarako Bergara begiz jo da: baña erabakirik aitzeko goizegi dala-ta, gerorako utzi. Euskalegun oyek al bait ospetsuenak izan bea dutela-ta, atzeriko euskalari gorenengoei otz - egin bea zitzayela esan du Urkixo Jaunak. Ortarako Aldundi'en eta Eusko-Ikaskuntza'ren laguntza bea-bea izango dala-ta, laguntza ori eskatzea erabaki da. Atzeriko euskalariai dei-egiteko Urkixo Lakonbe ta Kanpion autetsi dira.

5. Euskaltzaindia bere buruaren jabe izan dedintzat sorospen-baltzua soñtuko ote-degunentz itz egin da; baña ortarako urngo euskalegunetan aldi ta beta ohea izango dala-ta, auzi au ordurako utzi degu.

6. Oraingo euskalegun oyek antzuak izan ez dittezan, Durango ta bere inguruko erietan euskeraren alde lan egingo duan baltzu bat soñtzea zuzenetsi da. Alderdi guzietako gizonak baltzu onetan sa bitez eta euskaltzain bat bere buru ta zuzentzale izan bedi. Ortarako guzien eritziz Azkue Jauna autatu degu.

7. Euskalegun oyetan lanen bat edo batzuek egin dituztenai (abespatz, ereslari, Udaleko moñoi ta abañ) beren lanen ordezt zerbait ematea ebatzi da ta zeregin

au betetzeko ardurea Euskaltzain buruak afitu du. Eta besterik gabe batzaraldi au ere, oi dan bezela, azken otoitzaz amaitu da.

**Donosti 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian,
1921 'ko Urilaren 27 ' an.**

Egun ortan ileroako batzardian Euskaltzaindia bildu da: Azkue, maipuru, Kanpion, Eleizalde-Lakonbe-Landeretxe - Urkijo - aita Intza - Eguskitza - Altube - Olabide - Intzagarai - urgazlerik batez.

Eguskitza jaunak asken izan diran Durango'ko batzaraldien ageria irakuri du, ta euskaltzain guziyak ageri orixe zuzenetsi dute.

1. Kanpion jaunak, *ikeñ-saileko* buru danez, Batzarde onek zer gai ta nola erabili ditezkenen txosten bat azaldu du, ta txosten onek iru erabakibide dargerzki: 1.º euskal-itz jatorak ta aztu diranak izkuntzara erakari bear dirala. 2.º itz-beñiak ez dirala nola nai soñtu bear, bear-beañeneko utsunetan ta fajuz baño. 3.º euskal-esakerak edazotzeko, bildu, aztertu ta aldan ugariyen euskal-mintzoari ezari bear zaizkiyola. Txosten ori urango *ikeñ-sailaren* batzaraldian irakuri, ta berari dagozkiyon erabakiak gertutzea, Euskaltzaindia'k onetsi du.

2. Lakonbe jaunak Euskaltzaindia'ren Gutundegiko araudi-txostena irakuri du: bana-banaka berak dituen arauak aztertu dira, ta guziyak Euskaltzaindia'k zuzenetsi ditu. Gutunzayari, liburu edo gutunak erosteko, urteroko 2.000 peseta egozten zaizkiyo.

3. Euskaltzainburuak, bere beste lan askoren ideko euskal-lan eder bat dakañ. *Erizkizundi Irukoitz*a deitzen diyo. Iru zati ditu lan onetxek: *itzen-otsa* (cuestionario fonético) *itzen-erabidea* (cuestionario morfológico) *ta itz batzuen erabilkera* (cuestionario lexicográfico). Lan au ordea, ez du osorik irakurri, berak uste gabe, irarrolak osorik biali ez diyo-lako. Euskaltzain bakoitzari, bere etxera, lan ori osorik igoitzea, erabaki da.

4. Euskaltzainburu berak adierazo du, gure al-dizkari *Eusker*a merkeago iraritu ditekene buruzpi-dea. Artarako, irarrola batzuek biali dizkiyoten lan-sariyen berriak eman ditu; bañan aita Lhandek arazo ontan erakusbide asko eman lezazkikelako, ta berau batzaraldi ontan ez izanik, urengo batzaraldirako gai onen erabakia utzi da.

5. Urgezle dan Uriolabeitia jaunaren idazki bat irakurri da. Beronek diyo, on litzakela, Euskaleñan soñularien bidez, euskerazko abestiak zabaltzea. Ez da gai ontan, asko itz egin aren, ezeñen erabakirik aritu.

6. Eñiari gaztigatu bear zayo, Euskaltzaindia'ren batzaldira, Durango'ko euskal-egunak zirala-ta, etori diran lanen epaitza laxter azalduko dala.

7. Euskaltzaindia, *ikeñ-sail* ta *jagon-sail* batzoñ-deen osateak, eragitera dijoa. Kanpion jauna lendik aukeratu zan *ikeñ-saileko* buru.

Ikeñ-sail ontan bi urteko batzarikide abetxek izango dira: Olabide - Eguskitza - Eleizalde - aita Intza - Landeñetxe - Lakonbe - Urkijo - Azkue - jaunak. *Sail* ontako zadorlaria bear, ta oratarako autarakitara jo da.

Lenengo autabideak auxe dakar:

Eguskitzak autarki	1
Lakonbek	— 3
Altubek	— 3
Eleizaldek	— 1

Bi berdin etori diralako, beriz autarkitara jo da, ta onela izan da:

Lakonbek	6
Eguskitzak	2
Altubek	2

Lakonbe jauna beaz zadoñlari. *Iker-sail* Batzoñdea, Batzar nagusiko lenengo egunean, aratsaldeko lauerdietan bilduko da, ta ostean Batzar nagusia.

*Jagon-sail*ak Buru Eleizalde jauna lendik aukeratua dauka. Batzoñde ontako lankide, euskaltzain abek izango dira: Olabide - Kanpion - Eguskitza - Eleizalde - aita Intza - Azkue, Intzagarai jaunak.

Zadoñlarigoa autarkitara jo da, ta abek onela datoz:

Altubek	6
Eguskitzak	1

Altube beaz zadoñlari. Batzoñde au Batzar nagusiko bigarren egunean, goizeko amañetan bilduko da. Ostean Batzar nagusia.

8. Euskaltzaindia'k esker bereziyak damazkiyogure lankide Eguskitza jaunari Durango'ko bere elizitzaldiaren ordain. Euskalegunetako liburutxoan itzaldi orixe irañtzea, erabaki da.

9. *Schuchardt* jaunaren idazki bat Euskaltzain-

buruak irakurri du. Apraiz jaunak bere ikastaroak non aurera lezazkiken jakiteko, *Schuchardt* jaunari idatzi zitzaion, ta onek dasa, *Ullhembeck* jaunagana ikastun ori bialtzea on litzakela. *Ullhembeck* jaunak beriz diyo: Apraiz jaunaren ikasbideak aurerantzean osatzeko, *Zurich*-en badala irakasle argi ta guztiz jakintsua *Jud* deritzana.

Beste ainbet Bartzelona'ko Griera jaunak dasa: berdin Apraiz jaunak ere ta Euskaltzaindia'k Apraiz jaun auxe *Zurich*-era bialtzea, erabaki du. Aita Iraizoz ere *Zurich*-era joango danen erabakia artu da.

10. Aita Larinaga'k Euskaltzaindia'ri *Aita Zabala*'ren *eskuidatzi* bat biali diyo, Zabala jaun beronen *Aditza*'ri erantzi litzayokena. Euskaltzaindia'k auxe zuzenetsi du.

11. Eguskitza gure lankide jakintsuaren txosten bat, *Eusker*a'n argitaratzea erabaki da.

Ta besterik gabe, oituzko oitutzaz, amaitu da gaurko eseraldia.

Donosti 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian, 1921 'ko Urilaren 28 'an.

Batzañaldi oneri asiera eman zayo araudi-otoitzez. Azkue, maipuru; euskaltzainak: Kanpion - Eleizalde - Lakonbe - Landeñetxe - Urkijo - aita Intza - Eguskitza - Altube - Olabide - Intzagarai; urgazlerik batez,

1. Aita Lhande euskaltzainaren gaztigu bat dator, Euskaltzaindia'ri naigabez adierazorik, ez diyotela Bidasoako mugetan onuntza igarotzen laga. España'ko gobernuaren gebentza da noski.

2. Kolas jaunak bialtzen dituan, bere lan eder «*La tombe Basque*»'n irudi-ederǵaġuak Euskaltzaindiak poz-pozik ikusi ġitu.

3. Aita Lařinaga'k Astarloa frantzizkanoaren *Urteko Domekak* irařkolarako eskeintzen ditu, lanbide auxe Euskaltzaindia'ri egotzirik. Aita Lařinaga'ri erantzun beař zayo, oraingoz Euskaltzaindia'k beste lan asko irařǵaři darabilzkiela, ta ořetxegatik *Urteko Domekak*-en ardurarik ezin ařtu lezakela.

4. Bāher, gazte askařaren idazki bat, gogoz entzun du Euskaltzaindia'k. Onek erabaki du: Bāher jaunari Azkue gure Euskaltzainburuaren bi iztegi bialtzea, bera dagon *Universidadeko* irakasle bati ta beřtako irakasle-Batzari duarik edo utsean bana emateko. Iztegien ořdaintza Euskaltzaindia'ren bizkař.

5. Luciano Bonapařte jaunak eragin zituan *Euskerak*-*Mapak* erostea, erabaki da.

6. Lekuona jaunari Gazteizko Euskal-lkastarogatik zeř ematen zayon itaun diteke, Iruņako *Seminarioko* Ikasgoan zeř egin beař danen jakinbibe.

Da geyagokorik ez da, eseřaldi oneri amaitz eman zayo, oizko otoitzez.

Donosti' n, Gipuzkoa' ko Aldundi - Jauregian,
1921'ko Azaroa'ren 24'an.

Leřoan datoan euskaltzaņak bildu ziran: Azkue, maipuru, Kanpion - Urkijo - Eleizalde - Lakonbe - Landeřetxe - Altube - Olabide - Intzagarai, urgazlerik batez.

1. Erabaki da: aita Olabide'k urango batzaraldi-rako *Giputx-aditzaren* lana ekari dezala.

2. Altube jaunak «Erizkizundi Irukoitza»'ri eraskin abek jari nai lizkiyoke: *a)* arlo ontarako lankideak berialaxe izendatu: *b)* Gotzai jaunak lan-asialdi auxe onetsi dezala, apaiz jaunai zerbait bultzabide esanik: *d)* Udal ta Aldundi'ak lan-ontarako bereziz ardurazi: *e)* izpafingiyai eren laguntza eskatu: *g)* gaxo ta agurre-etxetan ere nor edo nor jari, lan orixe ango euskaldun artean zuzendu dezakena: *i)* Seminariotan galdetu, zein izan ditezken, ikasle artean, orotarako langile jatorrenak: *k)* Konbentuetan berdin: *l)* urgazleai galdetu, zer auzo artu dezaketen lan ori ekiteko, ta beari bada, eren lanbideegatik zerbait ordaindu: *m)* Euskaltzañak, beren alderdietan, lan au, gogo aundiz, egin bezate.—Eraskin abek ontzat eman dira; bañan Gotzai jaunari bere laguntza eskatzea, alpeñakakoa dala euskaltzain batzuek esanda, orékiko eraskiña atera ta utsik gelditu da. Eleizalde jaunak, arazo onen lankide abek aipatu ditu: *Otxandio*'n Juan Jose Langarika ta Andres Iza. *Gernika*'n Julio Bareño. *Durango*'n Aramendi ta Kosme Elgezabal. *Lekeitio*'n Alejandro Baldes. *Zornotza*'n Amantzi ta Zirilo Arzubiaga. *Ubide*'n Felipe Abasolo. *Urkiola*'n Jose Garcia ta Benito Bizkara. *Eloñio*'n Juan Izurategi. *Orozko*'n Maxarbeitia. *Ondaroa*'n Juan Zubikarai. — Altube Jaunak Gernika-aldeko 15 eritan izan ditezken lankideen izenak Euskaltzaindia'ri bidaliko dizkiyo. Olabidek Azpeiti ta Azkoiti ingurokoak. Intzagarai'k Irun'dik Tolosa'rañokoak.

3. Aita Lande'k España'ko mugazayakin darabilkien jardunari Euskaltzaindia'k ez diyo jaramonik

egingo; euskaltzañak órdea, bakoitzakiko alpideak aita Lande'ren alde jari dezazkiteke.

4. Euskaltzañen laguntza itz-beñiyen bilketarako eskatzen da, iztegiya oraindik ere osatzeko.

5. Uríolabeitia urgazle jaunaren eskariyari Euskaltzaindia'k bide eman lezayoke, euskal-oleñki pila batzuek argitaratu, ta abek saltzaleai ururik edo duan eman-da. Azkue jauna Bilbo'n egon-da soñulari batzuekin, ta abek esan diyote, ezin ibili litezkela eritik-eri, asti edo txango luzean Bilbo'tik urun.

Ta beste erabakizun batzuek urengo egunerako utzi-ta, araudi-otoitzaz, batzaraldiari amai eman zayo.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1921'ko Azila'ren 25'an.

Alkitan ixiri dira euskaltzain jaun abek: Azkue, maipuru, Kanpion - Urkijo - Eleizalde - Lakonbe - Landeñetxe - Altube - Olabide - Intzagarai, urgazlerik batez.

1. «La Tarde» deitzen dan Bilbo'ko izparingiyen Landeta jaunak euskal - ikastetxeen alde argitaratu duen lana, irakuri da; Euskaltzaindia'k entzun, ta atsegin aundia artu du. Landeta jaunari zorionak ematea erabaki da, ta beronen lana bereziz berargitaratu, zabaldu, ta izparingitara bidali.

2. Apraiz bekadun jaunaren idazki bat irakuri da: Zurich'era ezin joan ditekela, diyo; ikastaroa, berau

joan ofduko, erdi amaitu izango dalako. Euskaltzaindia'k, Paris'en oraingoz jaraitu dezala, erabaki du.

3. Maipuru jaunak «Diccionario de la Rima» egiteko lana Elgezabal jaunari egotzi diyola, dasa. Euskaltzaindia'k ontzat eman du.

4. Donosti'ko Udala'ri 1.500 peseta sorozpidetzat eskatzea, on litzakela, Azkue jaunak diyó. Beori da Euskaltzaindia'ren naya; ta ontakiko aurre-lanak egiteko Intzagarai aietaratzen da. Bilbo'ko Udala'ri eskari bera egin bea' zayo. Napaño'ko Aldundiya'ri berdin.

5. Aldundiai eskatu bea' zaye, berak eren idekoai idazten diyenean, euskera erabili dezatela, ta euskera baka' ez izanik, erdera ta euskera; baldin oftarako gebendurik ez bazaye.

6. «Junta de Gobierno de Juventud Vasca de Baracaldo»'k zenbait idazti Euskaltzaindia'ri eskatzen dizkiyo; ta onek bere Aldizkingi *Euskera*'ren orain arteko iru zenbakiyak igortzea, erabaki du.

7. Donosti'ko «Pueblo Vasco»'k ilero bein euskerazko ofialde bat argitaratu nai luke, ta Euskaltzaindia'k astero bi aldiz bidaltzen dizkiyon idazkiñoak ofialde oftarako gorde nai lituke. Erantzun bea' zayo, astero-asteroko idazkiñoak argitaratzeko, ta ileroko ofialderako be'ri be'riyak bidaliko zaizkiyola.

8. «Editorial Vasca»'k gure *Euskera* argitaratzeko eskatzen duen saria, maipuruak adierazi du. Euskaltzañai on iritxirik, *Editorial Vasca* aurretan *Euskera*'ren irarlea izango da.

9. Jesus'en Lagundi'ko aita Joakin Azpiazu jauna Euskaltzaindia'k *Euskera*'ren zuzendari izendatu du; aita Lande'ren orde.

10. Maipuruak bere lan edera *Afijos Vascos* irakuri du.

Ta besterik ez da, oiturazko otoitzaz, amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi - Jauregi'an, 1921'ko Lotazila'ren 29'an.

Batzaraldia, oizko otoitzaz asi-ta, egin dute leroz datozen euskaltzain jaun abek: Azkue, maipuru, Eleizalde - Kanpion - Urkijo - Lakonbe - Lande'etxe - Intza Olabide - Eguskitza - Altube ta Intzagarai, urgazlerik batez.

1. Olabide jaunak *Giputx-aditza*'ren lan edera irakuri du. Maipuru jaunak oar batzuek egin dizkiyo, ta lan orixe, ondo aztertu ondoren, *Euskera*'n argitaratzea, erabaki da.

2. Bartzelona'ko Griera jaunaren eskutitz batek diyo: Aita Polikarpo gure bekadunaren alde Jud ta Gocha irakasle ospetsuei idatzi diyela. Aita Polikarpo'ri esan bear zayo: Zurich-ko ikastaroa oraindik asten ez dalako, inguruko *konbentu* batean bitarte egin dezakela.

3. Griera jauna beronek, gure *Euskera* ta *Bulle-*

ti de Filologie-árteko trukea eskatzen du. Bayezkoa pozaz dasa Euskaltzaindia'k.

4. *Eusko - Ikaskuntza*'k Geñnika'ko *Congreso Vasco* atontzeko Euskaltzaindia'ren urgazpidea nai du. Euskaltzaindia'k *Congreso*'rako dagokiyon lana poz-pozaz aritzen du, ta Eleizalde jaunari egosten diyo, bigar beñtan azaltzeko, zer egin ditekeneen zia-boñotxo bat.

5. Euskaltzaindia'k euskal - ikastetxeak ez ditu zuritz utzi bear. Bizkaiko Aldundiaren erabaki bat ikastetxe oyen kaltez azaldu da oraintxo. Euskaltzaindia'k eri oyetako apaiz jaunai idaztea erabaki du, aren, eskaturik, edo berak batu-ta edo bakoitzez Aldundia'ri bide dan gauza agertu dezayotela: alegiya, umeak *doctrina donea* bederik euskeraz ikasi dezatela. Eri-auso oyen izenak ara ementxe: Mendeta'ko Albiz - Aratzu'ko Belendiz - Gamiz'ko Añeta - Erigoitia Olea-Mexika - Bengoetxe - Arkotxa - Uribe - Urizubi - Aspiltsa - Derio - Laukariz - Yufeta - Orobio - Zenañuza - Geñika - Muxika - Astelara - Arkats - Oba.

6. Euskaltzain Lhande jaunaren alde Urkijo jaunak egin dituen jardunak, onek azaldu ditu. Oraindik orde da; Luis Miranda jaunarekin egongo dala; bañan jaun onek, ezin ezer dezakela esatekotan, len *Ministro de la Gobernación* izandako Goikoetxea jaunarengana joko duela.

7. Euskaltzaindia'k geyegi deritza Baraño ta Oyarzabal jaunai ematen zayen saria, abek egin dituzten orainárteko lanak aurrez-aurrez ikusi-ta. Baraño jaunak bere lantxoak orialdetu-ta dakañzki. Ondo. Euskaltzaindiak egoki deritza. Beste ainbet egin bear du Oyarzabal jaunak: bere idaztiñoak orialdetu.

Euskaltzaindia'k onetzaz auxe erababi du: Lantxo oyek orialdetuta betoz, liburutiño baten antzera, ta orialde bete bategatik, auferantzean egileai 25 peseta emango zaye. Lan oyek ordea, berak jayo edo bizi diran eñietatik egin dezazkiteke, Bilboratu beartu gabe.

Ta beste gai batzuek urango batzaraldirako lagata, oiturazko otoitzaz amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi - Jauregian, 1921'ko Lotazi- la'ren 30'an.

Aurreko batzaragirian aipatu diran euskaltzain jaun berak, bildu ziran; urgazlerik batez.

1. Eleizalde jaunak, atzoko batzaraldian, Gerñika'ko *Congreso Vasco* dala bide, egotsi zitzayon txostentxo, irakurri du. Bere aburuz, auxe izan diteke Euskaltzaindia'ren egikizuna: *Conferencias generales*.—Dos extranjeros y Menéndez Pidal.—*Lecciones: a) Fonética experimental* (Navarro Tomas), *b) fonética gramatical* (Gavel), *c) dialectología*, *d) el verbo*, *e) literaturas clásica y moderna*.—Secciones: *Enseñanza del euskera*.—*Enseñanza en euskera (grados, procedimientos, textos)*.—*Fomento del euskera en las clases cultas*.—*El gran diccionario euskerico*.—*El euskera y la Iglesia*.—*El euskera y el Estado*.—*Toponomástica vasca*.

Euskaltzaindia'k bere egikizunen eredutzat txostentxo auxe artu du.

2. Euskaltzaindiak urteburuan izan dituen eralki-yak irakurri ditu diruzain Altube jaunak, ta guzi-guzi-yak zuzenetsi dituzte beste euskaltzainiak.

Datoren urterako dirubidea auxe da:

Eusko-lkaskuntza'tik.	. .	3.000	peseta
Bilbo'ko Udala'tik	. .	2.500	»
Bizkai'ko Aldundi'tik	. .	15.000	»
Gipuzkoa'ko »	. .	5.000	»
Donosti'ko Udala'tik.	. .	1.000	»
Napároa'ko Aldundi'tik.	. .	3.000	»

Guzira. . . . 29.500 peseta

Liburutegian 1.000 peseta eralkiko dira, ez 2.000 len erabaki bezela.

3. Lieshonain jaunaren eskutitz batek dasa, ur-gazlearen izentza artu duela, ta eskafikasko.

4. Jesus'en Lagundi'ko Aita *Provincial'*ak eskuti-tzaz adirasten du: Aita Joakin Azpiazu, ezin izan ditekeala *Euskera* Aldirokoaren zuzentzale Euskal-tzaindia'k nai bezela; beste arazo ta lan gañantziyak Lagundia'n dauzkalako.

5. Manuel Irujo jaunaren eskutitzak, Napáro'ko Aldundia'gandik Euskaltzaindia'rentzat sorozpidea loñizeko alegin egingo duela, diyo.

6. *Edesti Deuna* deitzen dan liburoñoa Euskal-tzaindia'ri Aita Zabala - Aranak aurkestatzen diyo, ontzat eman-da ale batzuek erozi ditzan. Aita Olabi-de'ri egotzi zayo liburu onen iritziya.

Ta beste erizkizunik ez da, oiturazko otoitzaz amai eman zayo batzañaldi oni.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Ilbeltza' ren 26'an.

Leñoz datozen euskaltzain abek bildu ziran: Azkue, maipuru, Eleizalde - Kanpion - Lakonbe - Landeñetxe - Intza - Altube - Olabide - Intzagarai; urgazlerik batez.

1. *Ikeñ-saileko* Batzoñdeak dakañen asmo bat Euskaltzaindia'k zuzenetsi du. Asmo ori auxe da: euskal-idaztiyetako *aditz-jokerak* pñlotzea. Eleizalde jaunak *Joannes Etxeberñ* - en idaztiyetatik 500 'bat aditz-jokera ekañiko dituela, diyo. Kanpion jaunak *Axular'* enak azteñtuko ditu—Olabide jaunak *Leizañaga* ta *Mendiburu'* nak — Lakonbe jaunak *Ohienar'* enak — Altube jaunak *Mogel'* renak — Landeñetxe jaunak *Lañegi'* ren testamentua, ta aita Intzak *Joakin Lizañaga*-renak.

2. Auñeko batzañaldi batean erabaki bezela, bi-dali zaye Bizkai'ko auzo-eñiko apaizai, euskeraren alde egin dezatengo eskaria, ta Laukarizko apaiz jaunak erantzun du, Euskaltzaindia'ren asmoak antxe betetzen dirala, ta Bizkai'ko aldun batzuek, orain egun gutxi, egin duten ikeñaldi batean, ontzat eman dutela euskeraren aldezko jañdun orixe.

3. Maipuruak Urkijo jaunaren idazki bat irakuñi du: idazki oñtan dasa Duke de Miranda jaunarekin egon dala, Lhande euskaltzañaren alde zerbait atontzeko; bañan *Ministro* bategana jotzea obe litzakela. Maipuruak Maura jaunari idatziko diyola agertzen du, ta Euskaltzaindia'k bayetz erantzun diyola.

4. *Eusker*a gure aldirozkoaren zuzentzañe iza-

teko, Euskaltzaindia'k Nazario Oleaga jauna izendatu du.

5. *Euskera* auxa iru ilabetetik beingoa, aurrerantzean, izango da: Arpidearen saneurri: Españan 10 peseta izango da: Españatik lekore 15 peseta; 6 peseta ordea *Eusko-Ikaskuntza*'ko bazkideentzat.

6. *Erizkizundi Irukoitza* zabaltzeko, ta beroni dagozkiyon lanak bea bezela erabiltzeko, eri guzietako agindari ta euskaltzaleai arauditxo bat eman zaye — Geyen lan egiten dutenen izenak Euskaltzaindia'k bere *Euskera*'n azalduko ditu. *Jaungoiko-zale—Euskal-Esnalea—Argia* ta *Zeruko Argia*'ri otoi egin bea zaye, auxa egiteko.

7. Urkijo euskaltzañaren beste eskutitz bat irakurri da, berearen batez Zaragüeta jaunarena bidalirik. Eskutitz oyen gaya Gernikako *Congreso Vasco* da. Biyak diotena, atsegin aundiz, entzun da, ta dakarten erizkizuna, bigariko batzaraldian, lenbailen atontzea, erabaki da.

8. Euskaltzain buruak *afijos vascos* deritzan bere lan edera irakurten jaraitu du.

Ta beste gai batzuek bigariko utzi-ta, batzaraldi oni, betiko otoi-taz, amai eman zayo.

Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Ilbeltza' ren 27'an.

Auréz aipatu diran Euskaltzain berak bildu dira; urgazlerik batez. Azkue jauna maipuru.

1. Euskaltzaindia'ri Gernikako *Congreso Vasco*'n dagozkiyon lanen atontza:

a) Schuchardt, ta Uhlenbeck, ta Menendez Pidal'i itzaldi-nagusi-yetarako deituko zaye. Lenengoa etoriko ote dan zalantzan egon ezin ditekkelako, Euskaltzaindia'k Urtel-jaunari itzaldi nagusi bat egotziko diyo. b) Ikasbidetako lanak onela egotzi dira: *Fonética vasca* Navarro-Tomas jaunari. *Fonética gramatical* Gavel jaunari. *Semántica* Euskaltzainburuari. *Literatura vasca antigua y moderna* Urkijo jaunari. *Toponómastica* (histórica) Kanpion jaunari ta *Verbo sintético vasco* Albert Leon jaunari. d) *Sesiones* deritzan taldeko batzordeburu euskaltzainbat izango da. Talde ontako gayak: *Enseñanza del Euskera*.—*Enseñanza en Euskera*.—*Fomento del Euskera en las clases cultas*.—*El gran diccionario euskérico*.—*El Euskera y la Iglesia*.—*El Euskera y el Estado*.

Gaurtandik, talde ontako lanak artu ditezke. *Eusko-Ikaskuntza*'ra, Donosti'ra, bidali bear dira.

2. Euskaltzainburuak *afijos vascos*-en irakurtza jaraitu du.

3. Euskaltzainburu berak dasa, *Triangulación de Bizkaya* deitzen dan lana, angoxe Aldundia'k eskuartean dakařela, ta Aldundi'koak Euskaltzaindia'ren laguntza eskatzen dutela. Onek, gogo aundiz, lagun

egingo du; bañan lan oyen gayak osorik oraindik ez daudelako, Joñailerako laga da onetxen ardura.

4. Aita Zabala-Arana'k bere *Edesti Donea* Euskaltzaindia'ri agertu diyo, aletxo batzuek artzeko arén egiñik. Apaiz jaun langile oni bere lanari dagokiyon saritxo bat lendik Euskaltzaindia'k eman diyo, ta ez du, besterik eman bea' diyonik, uste. Auxe bide dala, Euskaltzaindia'k erabaki du: auferantzean beronengandik saria nai duten lanak, irar'kolara baño len, berak ikusi ta aztertu nai lituzke.

Ta beste gairik ez izanik, otoitzaz, amai eman zayo batzaraldi oni.

Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean, 1922'ko Otsala'ren 23'an.

Batzaraldian bildu ziran, ementxe aipatzen diran euskaltzain jaunak: Azkue, maipuru, Eleizalde, Urkijo, Lakonbe, Lande'etxe, Intza, Altube, Eguskitza, Olabide, Intzagarai ta Nazario Oleaga, ur'gazlea.

1. *Jaur'-sailak* erabaki abek daka'zki: a) Iraku'rtzen ikasteko lenengo ma'ako liburutxo bat azalzea, Eleizalde jaunaren ardurapean utzi da. b) Lekuona jaunari be'firo idatzi bea' zayo, bidali dezala lenbailen Durango'ko idaz-lanen bere aburua. d) Eleizalde jaunak Euskaltzaindia'ri eka'riko diyo bere *Zenbakiztia*, onetzaz ze' egin bea' dan erabaki bat artzeko. e) Aita Ariandiaga'ren *Geometria*, Olabide ta Eguskitza jaunak aztertu bezate. g) *Eusko-Ikaskuntza*'k lenengo

malako *Irakurtzaidatzitzaz* txosten bat nai luke, ta txosten au, Eleizalde jaunak Epaileko batzañaldirako ekañiko du.

Jaurtsailaren erabaki abek onetsi ditu Euskaltzaindiak.

2. Euskaltzañak, Euskal-idazti-izparingi, - aldizki'en idazpuru-laburpenak egiten gogoz jañdun dute, ta sail aundi bat egin-da gero, erabaki da, Urkijo jaunak oso-osoro egin dezakela lan auxe, ta batzañaldi ontan oñetzaz asmatu diran txañtelak beroni eman zaizkiyo.

3. *Ulhenbeck* jaunaren idazki bat maipuruak irakuri du. Jakintsu onek diyo, beretzat zorion aundiya ditekela euskaltzaleen artean Gernika'n izatea: gogo betez artzen duela bere bizkañ Euskaltzaindia'k jañ duen lana, ta bera ezin etoñi balitz, gaxotasunak utzi ez-da, lana ala prantzezkeraz ala españeraz bidaliko duela. Lanaren gaya auxe da: *Aglutinación y flexión*.

4. Azkue jaunak bere lan eder, *afijos vascos* irakurtzen jañdun du.

Ta beste gayak bigaramoneko batzañaldirako laga-ta, amai eman zayo oni.

**Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean,
1922'ko Otsala'ren 24'an.**

Euskaltzañak; goyan aipatu diranak eta Kanpion jauna: Urñazletatik: Nazario Oleaga. Batzañaldiari asipena eman zayo, betiko`otoitzaz. Azkue maipuru.

1. *Menendez Pidal* úrgazle jaunaren eskutitz bat irakuñi da. Geñnika'ko *Congreso*'rako gai eroso batzuek ageitzen ditu ta abetxek ondo aztertu ondoren, Euskaltzaindia'k deritza Geñnikako egunetako, *Mapa* izkeraketz bat egin bear dala: *jo-jau* aboskeraren al-dakuntzak azaldurik lenbizi; *neban-nuen nun' nuan* aditzari dagozkiyonak uñen; ta erderazko *mariposa* zenbat *itz-motaz* ogutzen dan esanik azken.

3. Beste gai bat ere aztertu, ta Geñnika'rako autetsi da.

Auxe da gaya: Euskalki baten erabitze bakañaren beañtasuna, berauxe Euskaleñi guziyan nagusitu dedin.

Gai auxe *Congreso*'ko egunetan itzaldi batez ageñtzeko arñdura, Altube jaunari egotzi zayo, ta Urkijo jaunari egotzi zitzayon lanaren ordain Altube'n auxe izango da.

4. *Antología de poetas vascos*, egiteko arazoa lendik egotzi zitzayen Urkijo, Lekuona ta Intzagarai jaunai. Urkijo jaunak, berari dagokiyan zatia laster ekañiko duela dasa. Intzagarai'k gai orñan ori dala, daitor... Lekuona jaunari idatzi bear zayo, egin due-naren galde. Euskaltzaindia'k, Gariñla'ren azkenerako lan onen gai guziyak bildurik nañ lituke.

5. Xabier Ibañia jaunari zoñionak agertu bear zaizkiyo, Iraizoz'en itzaldiak, lendabizi euskeraz egiten ditualako.

6. Aita Eusebio pranzezkotañak, berak zuzentzen duen ingitxo baten alde, laguntza nai luke. Lendik esana dauka Euskaltzaindia'k, onen laguntza loñtzeko, euskal ingitxo orek, ta beste edozeñek ere, erabakitako idazkera erabili bear dutela.

7. Apraiz bekaduna, Zurich'ko ikastaroa oraindik asi ez dalako, Paris'en egon ditek.

8. Euskaltzaindia'k *Gerhard Bäher* jaunaren euskaltasuna ikusirik, gaste azkar' oni zerbait diru ematea erabaki du, euskal-ianetan indar' aundiz jardun dezan. Diru ori bide, lan bat egotzi lekiyoke, ta Euskaltzaindia'ren gogokoa auxe litzake: *Schuchardt*'en *Baskische Studien* españeratu. Oretarako etzayo *Schuchardt* egileari baimenik eskatu bear, edozein itzultzerako emana dauka-ta.

9. *Eskutitzak*: a) Zaratamo'ko apaiz jaunak: alegin dagiyela euskeraren alde. Zorionak azaldu bear zaizkiyo. b) Gabel jaunak Gernika'rako lana gogoz artzen du. d) Berdin Nabaño'Tomas'ek. e) Gernikako Agustinoen aita nagusiyak dasa; bere agintepeko lkasgoan, ez dala euskeraren kalte ezer gauza txarik esan.

10. Euskal-idaztiyetan idoro ditezken adizkerak bear bezala jasotzeko, aurreko batzaraldian alako ingitxo-eredu bat somatu zan, Eleizalde'rena berau. Ori bide, bata ta bestien iritxiyak entzun dira; banan onetxen azken erabakiya datoñen ileko batzaraldietarako laga da.

Urango batzaraldiyak Donosti'n, Epaila'ren 30' ta 31'an.

Ta beste gairik ez da, otoitzaz amai eman zayo batzaraldi oni.

Donosti'n, Aldundi - Jauregian, 1922'ko Epaila' ren 30'an.

Emen aipatzen diran euskaltzañak batzaraldian bildu dira: Azkue, maipuru, Kanpion, Eleizalde, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Altube, Eguskitza, Olabide, Intzagarai; urgazlerik batez.

1. Eleizalde jaunak, berari eman zitzayon arazoaz auxe dasa: lenengo malako irakur-liburutxo a egiteko ardua, berak ezagutzen dituen iru irakasle emakumak gogo aundiz artuko dutela. Euskaltzaindia'k onetsi du.

2. Albert Leon'ek Gernika'n itzaldiya egingo due-la bere eskutitz batean dasa. Gernika'ko itzaldi nagusiyak *Uhlenbeck*, *Menéndez Pidal* ta *Urtel*-i egotzi zaizkiye.

3. *Jaur-sailak* aburutu ta onetsi du Euskaltzaindia'k auxe: Gernika'ko Batzaldi batera Bizkai'ko auzo-ikasgoak deitu, euskeraz idatzi, mintza ta irakuri dezaten nexka ta mutiak. Lau sari jariko dira: 25 pesetako bakoitza: bi mutientzat, ta beste bi neskati-entzat. Gernika'tik uruti diran ikasgoentzat auxe egikaitz-xamaña euskaltzañak deritzate. Ingurukoak bederik deitu bear dira. Eleizalde jaunak arazo onen ardua bere gain artu du.

4. Euskaltzainburu jaunak erizkizun auxe aita-tzen du: «Uri aunditxoetan Mundaka ta Gernika antzekoetan, euskera zabaltzeko zer egin dezake.» Euskaltzaindia'k onetzaz erabaki du: *Arcipreste* edo apaizburuai galdetu, zenbat ikasgo diran beren bar-

utietan ta bildu-ta jakin ezkeru, Euskaltzaindia'k gai
ortan zerbait egin dezake, edo beintzat tajuz asi.

5. Beste erizkizun bat Euskaltzainburuak irakur-
du: «Gure EUSKERA aldizkaria, zabaltzeko bideen
batzuk...»

Gai ontan ere apaizburuen erantzupena itxaron
bea' da.

6. Aurreko batza'aldian Urkijo jaunari eman zitza-
yon idazpuru-laburpenak egiteko lana, beronek azal-
tzen du. Euskaltzaindia'k ede'ki deritza, ta idazpuru
laburpen oyek Euskaltzaindia'ren euskal-lanetan era-
biliko dira.

7. Adiz-jokerak biltzeko ingi-eredua nolakoa izan
bea' duen, oraingoxe batza'aldian erabaki da. Bil-
keta au mendeka egin bea' da, XVI ta XVII mendeeta-
tik asi-ta. Ona-oraingo oredua:

SIGLOS XVI Y XVII

Flexión	} indeclinada } declinada
" indeclinada correspondiente	
Traducción	
Texto	
.....	
.....	
Dialecto (1).....	Variedad.....
	Verbo.....
Referencia documental	
.....	

(1) AN. BN. G. B. L. Z. c.

Ta beste gai batzuk bijaramoneko batzañaldirako utzi-ta, au, oiturazko otoitzaz, amaitu da.

Donosti'n, Aldundi - Jauregian, 1922'ko Epaila' ren 31'an.

Aurëan aipatzen diran euskaltzain jaun berak batzañaldira datoz; urgazlerik batez. Otoitzez, beti bezela, asi da.

1. *Eusko-Ikaskuntza*'k bidalitako *Irakultza-Idaz-tia* Eleizalde jaunak zerbait aztertu du, ta berak diyo-nez, erditan dauka oraindik. Urëngo batzañaldirako orën txostena ekañiko du.

2. Ariandiaga jaunaren *Geometria* Olabide jau-nak ez du osoro aztertu, ta bere ta Eguskitza jaunaren aburua urëngo batzañaldian azalduko da.

3. *Euskal-egunetan* egin zan idazle-batzaldiko epaileen aburuetan, Lekuona jaunarena utsean dago. Jaun oni bere aburua askotan eskatu zayo, ta ez du oraindik bidali. Beste epaileenak, Olabide ta Ormaetxea jaunena, aspaldi Euskaltzaindia'n daude. Onek arazo oni azkena eman nairik, auxe erabaki du: Ola-bide ta Ormaetxea jaunena aburuak eredutzat artu-ta, Azkue ta Eleizalde jaunak eman bezate azken-epai ori.

Lekaroz'ko Ikastetxean, ango euskal - azterketak ikertzera Intzagarai euskaltzaña bijoa.

5. *Eskutitz. Schuchardt* jaun jakintsuak bere batean dasa, ezin azaldu ditekela Gernika'n *Congreso Vasco* egunetarako.

6. Ostera ere aditz-jokeraren arloa euskaltzain artera badator. Urkijo jaunak dasa: XVI ta XVII Mendetako adiz-jokerategi bat aguro-xamar egin ditekela. Bayetz ere euskaltzañak deritzate. Oitarako *aufe-oar-bide* bat idatzi bear litzake. *Anteproyecto o plan de las formas verbales*. Oar-bide au egiteko ardua Lakonbe, Olabide ta Altube jaunak aritu dute.

Aditz-jokeren bilketarako, XVI ta XVII Mendetako idaztiak, onela banatu dira euskaltzain jaunen artean:

Azkue jaunari: *Refranes y sentencias*.

Euskaltzaindikoko lankide jaunai: *Kapanaga*.

Urkijo jaunari: *Merula - Marineo Sículo - Materre - Voltaire - Debocino escvara (Jean Haramboure), Los refranes del caballero de Vela ta Eguia Katholica (Bernard Gasteluçar)*.

Eleizalde jaunari: *Onsa hilceco bidia (Yvan de Tartas) ta Deboten breviarioa (P. D' Argaignarats)*.

Lakonbe jaunari: *Plegarioac, Refranes y poesías de Oihenart ta Jesu Christoren Imitationea (D' Arambillaga)*.

Eguskitza jaunari: *Leizaola*.

Olabide jaunari: *Refranes de Sauguis eta Mendi-buru*.

Altube jaunari: *Refranes de Garibay*.

Intza jaunari: *Catecismo de Beriain*.

Intzagarai'ri: *Manual devotioñezcoa, Noelac (Joannes Etcheberri), Catecismo de Richelieu de Silvain Pouvreau ta Philothea (Pouvreau)*.

7. Gipuzkoa'ko Aldundiari urteroko sorospidea eskatzerakoan, eskabidean ezañi bear da: Iztegiaren lanak ta Azkue jaunaren *Euskal atzizkiak* argitaratzeko eskatzen zayola sorospide orixe.

Ta beste gairik ez izanik, amai eman zayo batzafaldi oni oiturazko otoitzaz.

**Donosti 'n Gipuzkoa 'ko Aldundi - Jauregian,
1922 'ko Joñaila 'ren 27 'an.**

Leñoan izendatzen diran euskaltzain jaunak batzaraldian bildu dira: Azkue, maipuru, Eleizalde, Kampion, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Altube, Eguskitza, Olabide, Intzagarai; urgazlerik batez.

1. *Jaur sailak* erabaki ta Euskaltzaindia'k onetsi dituenak, abetxek dira. a) Aita Añiandiaga'k aurkestu duen *Geometria* ez da onetsi. Intzagarai'n bitartez lan orixe Euskaltzaindia'n agertu zan ezkeru, euskaltzain onek Aita Añiandiaga'ri erabaki auxe gaztigatu bezayo. b) Lekaroz'ko Aita Etxalar' urgazle jaunak *Erizkizundi Irukoitzari* dagozkiyon lanak bidali ditu. Aita beronek dasa, datoñen udara-aldean lan oyek beriztuko dituela, ta lengo lan ta eskeintza onetxegatik, berari eskeñaldiak agertu beñ zaizkiyo. d) Añeko batzaraldiyaren erabakiz, Euskaleñi'ko apaizburu edo *Arcipreste*ai beren barutiko ikasgoen zerenda eskatu zitzen. Añasate - Geñnika - Oñaroa ta Bermeo'koak erantzun dute, ta auxe izpañgietan azaldu beñ da, beste *Arcipreste* jaunak, orain arte erantzun ez dutenak, ikusi dezaten.

